

Maskulinitateen azterketa ekintza humanitarioan. Egiteke dagoen eztabaidarako ekarpenak

iker zirion landaluze

Argitalpen hau *Recursos especializados para un apoyo estratégico a defensoras de derechos humanos en países en conflicto, posconflicto y tensión* (PRO-2020K30025) proiektuaren esparruan egin da eta GLEAren diru-laguntza izan du.



Título: Maskulinitateen azterketa ekintza humanitarioan. Egiteke dagoen eztabaidarako ekarpenak

Egilea: iker zirion landaluze

2022

Euskarazko itzulpena: Iñigo Gallastegi

Edizioa:



www.hegoa.ehu.eus

UPV/EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre etorbidea, 81
48015 Bilbo

Tel.: 94 601 70 91
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián

Tel. 943 01 74 64
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Arabako Campuseko liburutegia
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz

Tel. / Faxa: 945 01 42 87
hegoa@ehu.eus

Diseinua eta maketazioa: Marra, s.l.
ISBN: 978-84-19425-01-0



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Espainia. Lan honek Creative Commons lizentzia du. Baimenduta dago lan hau kopiatzea, banatzea eta publikoki komunikatzea egilea aitortzen bada eta helburu komertzialekin erabiltzen ez bada. Ezin da lan hau aldatu, eraldatu edo lan honetatik beste bat eratorri.

Licencia completa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/>

Maskulinitateen azterketa ekintza humanitarioan. Egiteke dagoen eztabaidarako ekarpenak

iker zirion landaluze

Nazioarteko Ikasketetan doktorea eta Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Hegoa–Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuko eta euskal unibertsitate sistemako (2022-2025) Giza Segurtasuna, Tokiko Giza Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta Ikerketa Taldeko (IT434-22) kidea. Honako hauek dira bere intereseko gaiak: bakearen eraikuntza eta generoa; borrokalari ohien desarme, desmobilizazio eta gizarteratze prozesuak; justizia feminista eta maskulinitate berriak.

Aurkibidea

1. Sarrera	3
2. Ekintza humanitarioa gero eta gehiago kolokan jartzen duen testuingurua	4
3. Ekintza humanitarioaren eraikuntza maskulinoa	6
4. Genero-ikuspegia ekintza humanitarioaren kezka berandu eta mugatu gisa	8
5. Ekintza humanitarioan irudikatutako maskulinitate nagusiak	10
6. Maskulinitateen (eta boterearen) azterketa	11
7. Ekintza humanitarioan maskulinitateak aztertzeo dauden erresistentziak	14
8. Arreta berezia eskatzen duten erronkak	16
9. Ondorioak	18
Bibliografia	19

1. Sarrera

Krisi humanitario ugariak -eta gero eta konplexuagoak- dituen mundu egoera honetan, ekintza humanitarioa inoiz baino beharrezkoagoa ematen du. Hala erakusten dute, esaterako, Nazio Batuen Errefuxiatuentzako Goi Mandatariak kalkulatzeko dituen 100 milioi pertsona errefuxiatu eta lekualdatuek (IECAH eta MSF, 2022: 14). Kopuru hori, izan ere, marka negatibo berria da eta, besteak beste, Errusiak Ukrainan hasitako gerraren ondorio da.

Ekintza humanitoria egin dudana hurbilketa honetarako kontuan hartu dut bere kontzeptualizazioa eta praktika eztabaidan daudela. Kasu honetan, hondamendien (hondamendi "naturalak" zein gatazka armatuak) biktimei laguntzeko ekintzen multzotzat hartuko dut ekintza humanitarioa. Horiek tokiko zein nazioarteko eragileek egin ditzakete eta oinazea arintzeko, biziraupena bermatzeko, eskubideak babesteko eta giza duintasuna defendatzeko helburua izan ditzakete. Hala, helburu horiek erdiesteko, maiz, kaltetutako komunitateen desegituraketa sozioekonomikoa gelditu eta etor daitezkeen arrisku-egoerak aurreikusi beharra dago.

Bestalde, ekintza humanitarioak eskatzen du, alde batetik, gero eta handiagoak diren premiak betetzeko finantzazioa eta, bestetik, etengabe egokitzea premia horietara, krisien izaera desberdinetara, estatuko eta nazioarteko politika humanitarioetara eta eragileengan ere ematen diren aldaketetara, besteak beste; hau da, etengabe aldatzen ari den testuinguru batera. Alabaina, eskakizun horien aurrean, arlo humanitarioa ziurgabetasuneko, kolokazko eta finantzazioa mugatuko momentu batean dago.

Gaur egungo sistema humanitarioaren muga argien aurrean, jarrera konstruktibo batek eskatzen du, besteak beste, postulatu eta funtzionamendu zahar eta eragingabeak uztea; jarduketetan malgutasun eta sormen handiagoa erakustea; eta, batez ere, orain arte kanpoaldean izan diren ikuspegi kritikoen ekarpenak eztabaidetan sartzea, hala nola ikuspegi feminista, ikuspegi dekoloniala eta ingurumen-ikuspegia (klima-aldaketarekin lotutako kezka dituen). Testu honetan, sistema humanitarioa berrikustearen garrantzia azpimarratuko dut, maskulinitateen azterketa kontuan hartuta, batez ere gaiari buruzko ikerketa feminista eta generokoetan oinarrituta (Abellán Merelo de Barberá et al., 2021), baita ikerketa dekolonial eta arrazakeriaren aurkakoetan ere (Abbondanzieri, 2022; Perejil, 2022).

Ikusiko dugun bezala, genero-ikuspegiabatezere-eta, batzuetan, soilik-emakumeekin identifikatzeak berdintasunera modu integral batean hurbiltzea oztokatzen du ekintza humanitarioan. Ikuspegi hori zabaltzeko, honako hau proposatzen dut: alde batetik, kritikoki aztertzea nola gizonak, baita ekintza humanitarioaren arloan ere, boterea eraikitzen eta erreproduzitzen dugun, emakumeekiko,

beste gizon batzuekiko, gure buruarekiko eta naturarekiko harremanetan; eta, bestetik, gizonen eta maskulinitateen berdintasunaren aldeko eraldaketa errazten duten praktikak txertatzea.

Horretarako, honako eduki hauek garatuko ditut: gaur egungo nazioarteko ekintza humanitarioaren problematizazioa; ekintza humanitarioaren eraikuntza maskulinoa (bere printzipio, arau-oinarri eta egitura nagusietan); sektoreak genero-ikuspegia berandu eta modu mugatuan aintzat hartu izana; gizonen eta maskulinitateen irudikapen nagusiak ekintza humanitarioan eta horien mugak; botere maskulinoa eta gizonen pribilegioak maskulinitateen azterketaren muinean kokatu beharra; azterketa horren aurka ager daitezkeen erresistentziak, horrek gizonen boterea eta pribilegioak problematizatu nahi dituelako; eta azterketak aurkezten dituen zenbait erronka, ekintza humanitarioan arreta berezia eskatzen dutena.

Txosten honen edukiak hainbat iturritan oinarritzen dira: alde batetik, generoari, maskulinitateei eta ekintza humanitarioari buruzko azterketa dokumental espezifikoan; bestetik, gatazka armatuen eta bakearen eraikuntzaren arloan generoari eta maskulinitateari buruz egin ditudan beste lan batzuetan; eta, azkenik, berdintasunera bideratutako eraldaketa pertsonal eta kolektiboa lortzeko gizonekin egindako lanean nik neuk izan dudana esperientzian ere. Testu hau mugatua denez eta landutako edukiak etengabe bilakatzen direnez, hemen jasotako ideiak ez dira behin betikoak edo itxiak; aitzitik, hausnartzeko eta eztabaidatzeko gonbidapena izan nahi dute.

2. Ekintza humanitaria gero eta gehiago kolokan jartzen duen testuingurua

Turkian 2016an ospatutako Munduko Goi Bilera Humanitarioak gaur egungo ekintza humanitaria berritzeko hainbat erronka mahaigaineratu zituen. Hala ere, horietako gehienak ez dira oraindik aintzat hartzen, eta sistema humanitaria zaharkituta geratzen ari dela erakusten duten sintomak gero eta argiagoak dira. Ekintza humanitarioak -gaur egunera arte pentsatua eta garatua izan den moduan- sortu dituen ondorio politiko, sozial eta ekonomiko ugarien gaineko kontzientzia hazi delako agertzen da "humanitarismoaren problematizazioa" (Ruíz-Giménez, 2017: 176). Jarraian, ekintza humanitaria zalantzan jartzea eragin duten zenbait faktore aipatuko ditut.

Lehenik, nazioarteko laguntza sekuritizatzeko prozesua, Ameriketako Estatu Batuek eta haren aliatuek 2001az geroztik ezarritako "terrorearen aurkako gerra" politikekin hasi zena. Prozesu horrek Estatu eta agentzia humanitario askoren diskurtsoak, funtsak eta lehentasunak segurtasun- eta egonkortze-arloetara eraman ditu gatazka armatuko eta gatazka osteko testuinguruetan. Aldaketa horrek ekintza humanitarioaren berezko helburuak kaltetu ditu, hala nola oinarritzeko premiak asetzea (elikagaiak, ura eta saneamendua, aterpea, etab.), kalteberatasuna murriztea, prebentzioa, eta abar. Neurri handi batean, ikusteko dago zer ondorio izango duen arlo humanitarioan, lehenbizi,

COVID-19aren pandemiak eta, jarraian, Ukrainako gerrak nazioarteko agenda humanitarioaren monopolizatu izanak (IECAH eta MSF, 2022: 25).

Bigarrenik, 2008ko finantza-krisiak eta migrazio-mugimenduen kudeaketa gero eta murriztaileagoak arrazakeriako eta xenofobiako adierazpen instituzionalak eta sozialak areagotu dituzte. Horrek, bada, pertsona errefuxiatu gehienen eskubideak kaltetzen ditu. Europan, adibidez, Ukrainako gatazkatik errefuxiatutako herritarrei eta Europaz kanpoko gatazketatik -batez ere Ekialde Ertainetik- datozen pertsonen emandako tratu desberdintasuna paradigmaticoa izan da (*ibidem*: 58-60). Jarrera arrazista eta xenofoboek pertsona errefuxiatuen eta zenbait eragile humanitarioen elkartasun-ekimenen kriminalizazioa eta estigmatizazioa sustatu dute, batez ere, pertsona migranteekin konprometitutako Gobernu Kanpoko Erakundeena (GKE), Mediterraneo itsasoko salbamendu operazioen kasuan ikusi dugun bezala.

Hirugarrenik, laguntza humanitarioaren helburua aztertzean ikusten da horrek, neurri handi batean, herrialde eta erakunde emaileen interes eta kezka geopolitiko eta ekonomikoei erantzuten diela, premian oinarritutako irizpideei erantzun ordez. "Agertoki humanitarioen politizazio" horrek (Ruíz-Giménez, 2017: 175) azaltzen du zergatik jaso duten zenbait herrialdek (Yemen, Siria, Irak, Turkian edo Afganistan) azken urteotako laguntza humanitario gehiena (IECAH eta MSF, 2019 eta 2021) eta nola Ukrainak, oraindik datu zehatzik argitaratu ez bada ere, 2022ko ekintza humanitarioa monopolizatu duen.

Laugarrenik, mendebaldekoak ez diren emaile "berrien" protagonismoa handitu da arlo humanitarioan (besteak beste, ingelesez BRICS izenez deituriko horiena -Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrika-, baina baita Saudi Arabiarena, Arabiar Emirerri Batuena, Kuwaitena, Qatarrena edo Turkiarena). Horiek, dagoeneko, fondo humanitarioen % 40 osatzen dute. Joera horrek, bada, mendebaldeko humanitarismotik urruntzen diren printzipioak eta moduak sartu ditu. Gainera, eragile humanitarioen kopuru handiagoak eta heterogeneotasunak aurretik ere zeuden krisien kudeaketa eta koordinazio arazoak larriagotu ditu subjektu eta estrategia desberdinen artean.

Bosgarrenik, COVID-19ak eragindako osasun-krisiak zalantza gehiago sortu ditu ekintza humanitarioaren etorkizunari dagokionez. Pandemiaren gestioak arazo larriak utzi ditu agerian, hala nola estatuko osasun-sistemen ahultasun handia; koordinazio global eskasa; hutsak krisien prebentzioan eta alerta goiztiarrean; eta "osasun nazionalismo" insolidarioa (adibidez, txertoak banatzeari dagokionez) eta erantzun globalaren eraginkortasunean ondorio larriak izan dituen.

Azkenik, aipatutako faktoreez gain finantza-arloa dugu. 2022an, nazioarteko laguntza humanitarioaren zenbatekoa pixka bat igo zen, 2018tik 2021era bitartean ere gertatu bezala. Hala ere, joera aldaketa bat finkatu da aurreko urteekin alderatuta. Izan ere, urte horietan finantzamenduaren gehikuntza metatua % 30 izatera heldu zen. Gaur egun, ordea, laguntza humanitarioaren finantzamenduaren egoera globala geldialdikoa da. Premiak, ordea, etengabe hazten dira; eta egoera bi horien arteko arrakala urtero areagotzen da. Adibidez, 2020an, lehen aldiz, Nazio Batuen Erakundeak krisi humanitarioei aurre egiteko eskatzen duen aurrekontuaren % 52 bete gabe geratu zen finantzazio faltagatik. Espainiako estatuan, 2008ko finantza krisiaren ondoko aldian, ekintza humanitarioa murrizketa gehien izan zituen lankidetzaren tresna izan zen. Horren ondorioz, 2021ean, Espainiako Garapenerako Laguntza Ofizialetik ekintza humanitarioari emandakoa % 3,5 izan zen, nahiz eta Espainiako lankidetzak jarduera horri % 10 emateko konpromisoa duen (IECAH eta MSF, 2019, 2021 eta 2022).

3. Ekintza humanitarioaren eraikuntza maskulinoa

Ekintza humanitarioak honako helburu hauek ditu, besteak beste: giza oinazea arintzea, zaintzea, sendatzea, babestea eta giza duintasuna gordetzea. Horiek guztiak zilegi dira eta sortutako bidegabekeriak eraldatzeko asmoa dute. Baina eragile humanitarioen eta laguntza jasotzen duten komunitateen eta pertsonen artean ezartzen den harremana, Andersonek gogoratu bezala (2004: 214), "desorekatua da, nahitaez". Lewis Turner (2019: 2) harago doa adierazten duenean humanitarismoak zaintzen duen neurri berean kontrolatzen duela, sendatzen duen neurri berean kaltetzen duela eta ahalduntzen duen neurri berean zapaltzen duela. Zaintza eta kontrola, ahalduntzea eta zapalkuntza; konbinazio horiek erakusten dute zenbateraino zeharkatzen duen botereak ekintza humanitarioa. Hura, makro maila batean, "gubernantza humanitario" modu bat bilakatzen da, ordena globalerako erabilgarria dena (Barnett, 2017: 4-5; Lewis, 2019: 11); eta, mikro mailan, generoko konnotazioez bustitako paternalismo baten menpe dago -bere oinarri ideologikoetan, jarduteko moduetan eta eguneroko praktketan- (Swaine, 2017: 197 eta hurrengoak).

Horrek guztiak, bada, ekintza humanitarioak dominazio-bektore bezala duen rolari buruzko hausnarketa kritiko batera eraman behar gaitu. Izan ere, haren oinarri etikoak edo printzipioak, arau-oinarriak eta egitura nagusiak modu partzial batean eraiki eta garatu dira (Abellán Merelo et al., 2021: 116). Hain zuzen, ekintza humanitarioa sortu duen kultura-unibertso hegemonikoa mendebaldekoa, zuria, klasista, arrazista, binarioa, heteronormatiboa eta, noski, androzentrikoa da.

Lehenik, humanitarismo klasikoaren oinarri ideologikoen gizonen balore, interes, premia eta ikuspuntuak adierazten dituzte, hain zuzen europar elite zuriko gizonena. Bere mendebaldeko bertsio modernoan, humanitarismoa Henry Dunantekin eta -Solferinoko Guduan (1859) gerraren lazgarrikeria ikusi ondoren- Genevako Hitzarmena (1864) eta Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordea sustatzeko ekimenarekin identifikatzen da, erlijioan eta karitate kristauan oinarrituta (Bradshaw, 2013: 86). Humanitarismo horren sorkuntzan garaiko arduradun politiko eta militarrek hartu zuten parte batez ere, baita filantropian interesatutako hainbat noblek ere (Brauman, 2011: 19), ideia humanitarioen nagusitasunaz ziur baitzeuden. Izan ere, garai hartako Europa kolonizatzaile hura ziur zegoen bere gehiagotasun moral eta kulturalaz.

Denborarekin, humanitarismo klasikoaren printzipioak (gizatasuna, neutraltasuna, independentzia eta inpartzialtasuna) gero eta gehiago kolokan jarri edo zehaztu izan dituzte arlo humanitarioan, beren jatorria kontuan hartuta horiek dituzten partzialtasunaz jabetu diren heinean. Bizitza mehatxatzen duten egoera kritikoetan dauden pertsonak laguntzeko obligazioa tradizio erlijioso eta/edo espiritual askotan eta kultura askotan ikusten da (Zenbait Egile, 2000: 18; Bradshaw, 2013: 86). Hala ere, ez dago unibertsaiki onartuta laguntza hori gatazka politiko, ideologiko edo erlijiosoetan parte hartu gabe (neutraltasun printzipioa), baldintza politikoak kontuan hartu gabe (independentzia printzipioa) eta jasotzen duten pertsonen ezaugarriak kontuan hartu gabe (inpartzialtasun printzipioa) eman behar denik (Donini, 2013). Neutraltasunari dagokionez, esate baterako, Beatriz Abellán Merelo eta beste batzuek salatzen dute (2021: 116) argudiatu egin dela emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea gatazka ideologiko batean parte hartzea dela eta, hortaz, printzipio hori haustea. Baina kontrakoa ere esan genezake, hau da, logika patriarkalen aurka ez egitea eta, hala, horiek erreproduzitzen laguntzea gatazkan parte hartzea dela.

Bigarrenik, humanitarismoaren arau-oinarriek ere joera patriarkalak dituzte. Adibidez, egile feminista askok Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa sexu eta genero desberdintasunak naturalizatzeagatik kritikatu dute, horrekin gerra legitimatzeko eginkizun bat betetzen duelako, "biktimak" (emakumeak) eta "babesleak" (gizonak) behar dituen gizarte eraikuntza gisa. Batez ere, kritikatzeko zaio ekintza humanitarioaren arauak, hala nola 1949ko Genevako Konbentzioek, genero-rolen ikuspegi esentzialista bat kodifikatu zutela. Ikuspegi hori, emakumeak eskubide-subjektu gisa hartu beharrean, gizonen esperientzia eta pertzepzioan oinarritzen zen. Gauza bera gertatzen da Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidean. Horretan emakumeak marjinatuak izan dira estandar maskulinoaren aurrean -unibertsaltzat aurkezten dena-. Hala, aitortutako eskubideak, babestutako ondasun juridikoak, kontzeptu gakoak, praktikak eta prozedurak gizonen interesen eta kezken mesedera egon dira (zirion landaluze, 2019: 539-540). Era berean, pertsona errefuxiatuen Nazioarteko Zuzenbidean, aterpea eta asiloa gizonen ikuspegitik sortu, aplikatu eta interpretatu dituzte. Adibidez, pertsona errefuxiatua zer den definitzean ez zen kontuan hartu generoagatik jasandako jazarpena eta, horrek, zenbait indarkeria mota despolitizatu zituen, hala nola sexu-indarkeria, ezkontza behartua edo genitalen mutilazioa (Miguel, 2016).

Hirugarrenik eta azkenik, eragile humanitarioek (Estatuak, gobernu arteko erakundeak, GKEak eta, gero eta gehiago, enpresa transnazionalak) generoak zeharkatutako printzipio ideologikoetan (arrazionaltasuna, indibidualismo liberala, hierarkia) oinarritzen dituzte beren politikak (Kimmel, 2002: xiii). Emaile humanitario nagusiek (mendebaldeko Estatuak, Nazio Batuen sistema eta Europar Batasuna) egitura hierarkikoak osatzen dituzte, hau da, kide boteretsuenen boterean oinarrituta daude eta generoari ezikusia egin dion elite maskulinoak ordezkatzeko dituzte batez ere. Elite hura da oinarritzko erabakiak hartzen dituen (Mujika Chao eta zirion landaluze, 2021: 392). Halaber, eragile horiek azken hamarkadetan garatu dituzten politika ekonomiko neoliberalak genero-desparekotasuna erreproduzitu eta gizonen dominazio-posizioa indartu dute (Connell, 2001: 371). Esate baterako, "genero-indarkeriako eremu berriak" sortu dituzte haien austeritate politiken, finantza merkatua liberalizatzeko politiken eta militarizazio eta sekurizazio prozesuen bitartez. Horiek guztiek eragina dute arlo humanitarioan (True, 2012; Abellán Merelo de Barberá et al., 2021). Ondorioz, eragile humanitarioak "salbatzaile" eta berdintasunaren aldeko gizarte eraldaketaren sustatzailetzat hartzen dituen irudikapen orokortua oso zalantzarria da.

4. Genero-ikuspegia ekintza humanitarioaren kezka berandu eta mugatu gisa

Ekintza humanitarioan nazioarteko garapenaren arloan baino beranduago txertatu da genero-ikuspegia. Azken horretan, izan ere, emakumeen eginkizunari buruzko eztabaidek, lehenik, eta genero harremanetan ematen den desparekotasunari buruzko hausnarketa feministak, gero, XX. mendearen bigarren erdia ugaritu dute. Hala, garapenerako lankidetzaren politiketan hainbat ikuspegi sartzea ekarri dute, batez ere "Emakumeak Garapenean" eta "Generoa Garapenean" izenez ezagututako horiek. Zenbait hamarkadako inplementazio baten ondoren, agentziek eta Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek (GGKE) hartutako genero-ikuspegiak hainbat kritika jaso ditu, hala nola diskurtsoaren eta praktikaren arteko arrakala; generoa emakumeei bakarrik dagokielako ideia, edo ikuspegi hori edulkoratu (Harcourt, 2010: 211-212), kooptatu eta despolitizatu (Cornwall eta White, 2000: 2) dutelako salaketa. Kritika horren arabera, genero-ikuspegia tresna espezifikoak eta hura aplikatzeko profesionalak behar dituen "industria" edo prozedura teknikoan multzo bilakatu dute, (Standing, 2007: 103-104). Izan ere, maiz, generoko ekintzak teknikoak izaten dira batez ere eta, horregatik, ez diete hainbeste aurre egiten egitura patriarkalei, ez baitituzte lantzen gizonen eta emakumeen arteko botere-harreman desparekoak kolokan jartzearen eta eraldatzearen ondorioak (Cleaver, 2002: 18). Horri lotuta, beste kritika batzuen arabera, generoko ekintzak proiektuen eraginkortasuna handitzera bideratu dira, emakumeen eskubideak sustatzera baino gehiago. Hortaz, ez dute derrigorrez genero-harremanak eraldatzen lagundu (Olivius, 2016: 56).

Generoa garapenean zeharkakotzeko lanaren argi-ilunak gorabehera, ezin dugu ukatu ikuspegi horren funtsezko kontzeptuak, hala nola boterea, agentzia, ahalduntzea edo interseksionalitatea, garapenerako lankidetzaren eztabaidetan, politiketan eta praktikan sartu eta horietan eragin dutela (Larrañaga eta Jubeto, 2012).

Sektore humanitarioan, ordea, genero-ikuspegia kanpoan egon da hainbat hamarkadez (Abellán Merelo de Barberá et al., 2021: 117). Hura 1990eko hamarkadan hasi zen txertatzen eta bere oinarria da krisi humanitarioek eragin desberdina dutela emakume eta gizonengan genero arrazoiengatik, hain zuzen ere rol desberdintasunagatik eta batzuek eta besteek gizartean duten egoeragatik. Horrek, kaltetutako komunitateetan aurretik ere zeuden genero-desparekotasunei lotuta, bizitzeko behar dituzten baliabideetara sarbide desberdina izatea dakar, baita laguntza humanitarioak eman ditzakeen horietara ere. Beraz, genero-ikuspegiak, ekintza humanitarioan, genero arrakalak murriztea eta esku-hartzeak inklusiboak direla bermatzea ditu helburu (IASC, 2017: 21).

Genero-ikuspegiak sektore horretan duen aintzatespenak aurrerapen geldoa du eta, gaur egun ere, marjinala da literatura espezializatuan, politiketan eta ezarritako ekintzetan (Bradshaw, 2013: 86). Hori azaltzen duten arrazoiaren artean, ekintza humanitarioaren izaera teknikoa, urgentea eta epe laburrekoa aipatu ohi da. Izan ere, erabaki azkarrak hartzen dituzte faktore material eta logistikoei buruz, baina arazo handiagoak izaten dituzte ukigaitzagoak, politikoki konprometituak eta epe luzekoak diren arazoei buruz erabakitzeko, hala nola gizarte-egiturak eta kultura-balioak eraldatzeari dagokionez (Zenbait Egile 2000: 97).

Halaber, garapenerako lankidetzan bezala, ekintza humanitarioan genero ikuspegiak emakumeengan jarri du arreta. Kontzeptu biak (generoa eta emakumeak) sinonimo bezala landu ohi dira, hortaz, esku-hartzeak emakumeentzat, emakumeei buruz eta/edo emakumeekin egindako jarduerak izaten dira. Hori emakumeek sexu-genero zapalkuntzako sisteman jasaten dituzten desparekotasun politiko, sozial eta ekonomikoen bitartez justifikatu da. Alabaina, maiz, "biktimen" kategoria zorrotz, estatiko eta boteregabetzailean kokatu dituzte; eta, horrekin batera, indartu dute emakumeei lotutako zaugarritasunaren eraikuntza historikoa eta laguntza eta babes berezia behar duen objektu pasibo gisa -adinez txikikoen maila berean- kokatzen dituen imajinario soziala.

Kontu horren gainean, Lewis Turnerrek (2019: 2) galdetzen du zaugarritasuna emakumeekin lotzeak ez duen neurri batean agenda politiko jakin bat laguntzen. Galdera egokia da, izan ere, emakumeak biktima eta "talde zaugarri" gisa identifikatzeak ekintza humanitarioa bera eta, aldi berean, generoko *statu quo*-a legitimatzeko helburua bete dezake. Izan ere, irudikapen horrek boterean oinarritutako eta genero rol eta estereotipo tradizionalak erreproduzitzen duen diskurtso dikotomikoa indartzen du ("gizonek erreskatatzen dute eta emakumeak erreskatatuak dira"). Diskurtso hura, azken batean, erabilgarria izan da sexismoak zeharkatutako eredu humanitario hegemonikoarentzat; "gizon erreskatatzaileek" "erreskatatzeko emakumeak" behar baitituzte. Desberdintasunak erreproduzitzen dituen eredu hegemoniko horretan, emakumeak eskubide osoko subjektu aktibotzat hartzeko bidea ibiltzeko dago neurri handi batean.

Genero-ikuspegia "emakumeen gaiekin" identifikatzeak (maiz, gainera, mespretxuz) dakarren beste ondorio bat da garapenerako lankidetzaren eta ekintza humanitarioaren politikek eta esku-hartzeek "gizonak saihestu" izan dituztela (Greene, 2000). Beraz, ez da aintzat hartu maskulinitatearen eraikuntzak sistema patriarkalaren izaera eta mantentzea ulertzen laguntzeko duen ahalmena. Era berean, gizonekin lan egiteak berdintasunezkoagoak diren egoerak lortzeko duen eraldaketa-ahalmena galdu da. Generoaren eta emakumeen identifikazio hori, gainera, eroso eta baliagarria izan daiteke gizonentzat, haiek desparekotasuna eraldatzeko duten ardurari garrantzia kentzen eta jarduteko premia emakumeengan jartzen duen heinean.

Azkenik, sektore humanitarioari aplikatutako genero-ikuspegiaren beste ezaugarri bat da mendebaldeko feminismo liberalaren ideietan oinarritzen dela eta horrek feminismoaren beste proposamen erradikalago batzuk marjinate dituela, bai Iparralde Globalekoak bai, bereziki, Hegoalde Globalekoak. Hala, krisietako esku-hartzeek lehentasuna eman diote emakumeak indarkeriaren aurrean (batez ere sexu-indarkeria) babesteari eta emakumeek jardueretan eta erabakitzeke eremu jakinetan parte hartzeari. Aitzitik, egingo diren jarduerak erabakitzen eta inplementatzen dituzten egitura patriarkalak eraldatzeko ahalegina txikiagoa izan da (Mujika Chao eta zirion landaluze, 2021: 393).

5. Ekintza humanitarioan irudikatutako maskulinitate nagusiak

Genero-ikuspegiaren aintzatespena berandua eta mugatua izan da ekintza humanitarioan, eta ez da gizonen eta maskulinitateen rolari buruzko azterketarik egin, edo horiek oso berriak dira (Enarson eta Pease, 2016: 8; Olivius, 2016: 57). Lehenengo erreferentziak, izan ere, Generoa Garapenean estrategiatik datoz. Horietan, gizonen jarrera eta jokaerak emakumeen eskubideetan aurrera egiteko oztopo gisa identifikatu ziren. Honako hauek dira gizonen rolari buruzko lehenengo formulazio horietan dauden indar-ideia biak (White, 2000: 34 eta hurrengoak): gizonak "arazoak dituzte" (adibidez, hornitzailearen rol tradizionala galdu dutelako, alkohol gehiegi edaten dutelako, etab.) edo gizonak "arazoa dira" (haien sexu-jokaerak GIB-IHESA kutsatzen duelako, emakumeen aurka indarkeria erabiltzen dutelako, etab.). Kasu bietan (arazoak dituztela edo arazoa direla) haien jokabideak emakumeengan, gainontzeko gizonengan, komunitateetan eta, jakina, esku-hartze humanitarioetan eta garapen prozesuetan eragiten du.

Denborarekin, subjektibitate maskulinoen irudikapena zabaldu egin da. Zentzu horretan, Elisabeth Oliviussek (2016: 57-63), hainbat agentzia eta GKE humanitarioen dokumentazioa aztertu eta gero, gizonen hiru irudikapen nagusi hauek identifikatzen ditu esku hartzen duten gizarteetan, hau da, Hegoalde Globaleko gizarteetan:

1. Indarkeria erabiltzen eta emakumeen aurkako indarkeria erreproduzitzen duten gizonak. Horien artean batzuek sexu-indarkeria erabiltzen dute eta hori genero ikuspegiaren funtsezko gai bilakatu da ekintza humanitarioan. Paradoxikoki, gizonak biktimario ia guztiak diren arren, oso ekintza gutxi bideratzen zaizkie, indarkeriaren prebentzioaren ardura nagusia emakumeengan jarriz. Halaber, maiz, argudiatzen da "gizon horiek" matxistak eta zapaltzaileak direla "beren gizarteak" halakoak direlako (haien kulturak, erlijioak, tradizioek edo balioek jokabide horiek sustatzen dituztelako, alegia), Hegoalde Globalaren eraikuntza arrazista eta (neo)koloniala eginez.
2. "Atearen zaindariak", hau da, familian eta komunitatean boterea (ekonomikoa, soziala, politikoa, kulturala, etab.) duten eta beren pribilegio-egoera baliatzen dute gizonak, nahiz eta agian ez duten genero-desparekotasuna modu aktiboan babesten. Izan ere, gizon horiek berdintasunerako aldaketa oztopatu edo lagundu dezakete. Batez ere lidergo eta autoritate handiena duten gizon horiek eraldaketarako aukera eskaintzen dute eta beste gizon batzuk inplikatzeko traxzio-indarra izan daitezke.
3. Gizon "problematikoak", krisi egoeran familiaren hornitzailearen eta babeslearen rola bete ezin dutenak eta gizartearen arbuioa, autoestimu baxua, depresioa eta jarrera antisozialak (drogaz eta alkoholaz abusatzea, kriminalitatea, emakumeen aurkako indarkeria, eta abar) jasaten dutenak. Irudikapen horrek honelako argudioak elika ditzake: alde batetik, gizonen biktimizazioa sustatzen dutenak eta, bestetik, emakumeen ahalduntzeari eta generoko politikari emandako "gehiegizko" protagonismoari haien egoeraren erantzukizuna leporatzen diotenak, feminismoaren aurkako ikuspegietatik. Hala, zapalkuntzari buelta ematen diote eta generoko harreman eta rol desparekoak eraldatzeko ahaleginak tentsioa eta indarkeria sortzen duen "gizarte disruptore suntsitzaile" gisa interpretatzen dituzte.

Irudikapen horiek, alde batetik, ez dute aukera guztiak agortzen; adibidez, krisi testuinguruan, badaude generoko mandatu nagusiei ezikusia egiten eta berdintasunaren alde gogoz inplikatzeko diren gizonak ere. Beste alde batetik, irudikapen problematikoak dira berdintasunaren aldeko gizarte-eraldaketan gizonak sartzeko aukera oso gutxi uzten dutelako.

Halaber, irudikapen horiek praktika diskurtsiboak dira eta, hortaz, generoa tartean duten botere praktikak (White, 2000: 36). Irudikatutako subjektibitate maskulinoetan, gizonak subjektu autoerreferentzial eta konplexu gisa identifikatzen dira. Horrek, bada, emakumeak objektu eta laguntza behar duen biktima pasibotzat hartzen dituen ikuspegi tradizional eta estereotipatuarekin kontrastatzen du. Irudi horrek, gainera, Hegoalde Globaleko emakumeengan eragiten du batez ere (Mohanty, 1988: 82).

Azkenik, arreta Hegoalde Globaleko gizonengan jartzen duten irudikapenez ari gara, Iparralde Globaleko eragile humanitarioen izaera patriarkalaren azterketa alde batera utziz. Izaera patriarkal horren adibide dira erakunde humanitarioen egitura hierarkikoa eta horietan nagusi den botere maskulinoa; praktika misogino eta sexistak proiektuen ezarpenean; emakumeei egokitutako bigarren mailako eginkizuna, edo langile "humanitarioek" (militarrek edo zibilek) erabilitako sexu-indarkeria edo genero-indarkeria. Auzi horiek Iparralde Globaleko gizarte patriarkatua erakusten dute eta horrek autokritika egitera gonbidatzen gaitu. Hala, gaingitu behar ditugu, alde batetik, eragile humanitarioak "ohoragarri eta zibilizatu" gisa aurkezten dituzten mitoak; eta, bestetik, "besteak arazoa direlako" edo "matxismoa besteena delako" ideiak, hau da, arazoa Hegoalde Globaleko gizarteak -eta gizonak- direla.

6. Maskulinitateen (eta boterearen) azterketa

R. W. Connell-ek (1995) gizartean maskulinitate hegemoniko bat eta menpeko beste batzuk daudelako ideia garatu zuen. Maskulinitate hegemonikoa une eta leku jakin batean kulturalki goraiatua den maskulinitate mota da; maskulinoa den horren gainean inposatzen den ikuspegia da eta gizonengandik espero den jokabidearen neurri-unitatea, hau da, gizarte honetan gizona zer izan behar den zehazten duena. Ideia horretatik abiatuta, gero eta azterketa gehiago dago maskulinitateei eta gizonok betetzen ditugun botere-posizioetan eragiten duten faktoreei buruz.

Izan ere, gizonok ez dugu talde homogenea eta aldaezina osatzen. Oso modu desberdinetan kokatzen gara gizartean, boterea lortzeko aukera desberdinak ditugu eta modu desberdinean erabiltzen dugu, hainbat aldagai sozial eta pertsonalen arabera; arraza, klasea, adina, sexu-orientazioa, dibertsitate fisikoa edo psikikoa, hezkuntza-maila, besteak beste. Ez dago maskulinitate-eredu bakar eta unibertsalik; aitzitik, hura plurala eta malgua da, unearen, tokiaren eta kulturaren arabera aldatzen baita, eta kultura bakar baten barruan ere (Connell, 2001). Beraz, maskulinitatea ez da ez estatikoa ez monolitikoa; eraikuntza arina da (Hooper, 1998: 32), eta gure buruarekiko,

besteekiko eta munduarekiko harremanaren eraginez aldatzen da (zirion landaluze, 2018: 65). Era berean, maskulinitatea hauskor, behin-behineko eta etengabeko estatus eta aintzatespen bati lotuta agertzen da, batez ere zu bezalako gizonen aldetik; hortaz, gal daiteke eta egunero babestu eta erreproduzitu behar den zerbait da (White, 1997: 16-17).

Hala ere, maskulinitateen eta gizonen botere-mailen aldagarritasun horrek ezin du emakumeen aurrean eta gizarte guztietan ditugun pribilegioen egiturazko izaera ezkutatu, sexu-genero zapalkuntzako sistemaren esparruan. Sarah C. White (1997: 18) ikertzailearen esanetan, "gizon gaixoak, haiek ere arazoak dituzte" diskurtsoa gainditu behar dugu, izan ere, ukazina da abantaila dutela baliabideak eta boterea (politikoa, ekonomikoa, erlijiosoa, antolakuntzako, etab.) lortzeari eta kontrolatzeari dagokionez. Hainbat mendetan eraikitako eta erreproduzitutako dominazio-posizio horrek rol jakin batzuk betetzea exijitzen digu, baina gizon izateari lotutako pribilegioak ere ematen dizkigu -"dibidendu patriarkal" delakoa-; eta kontziente izan ala ez, edo horiek erabiltzeko interes handiagoa ala txikiagoa izan, pribilegio horiek baliatzen ditugu. Beraz, maskulinitate desberdinak daudela jakiteaz gain, horietan botere nola erabiltzen den ere aztertu behar dugu.

Berdintasunaren aldeko borrokan gizonen rol espezifikoak izan dezaketelako ideia berriki hedatu da (Connell, 2005: 1801) eta, neurri handi batean, nazioarteko mugimendu feministari esker. Gizonen berdintasunaren aurkako maskulinitate hegemonikoei aurre egin diezaiekete -izan ere, askok egiten dute dagoeneko-. Andrea Cornwallek eta beste batzuek (2011: 5-6) aipatzen duten bezala, maskulinitatea sozialki eraikitzen den neurrian, posible da hura eraldatzea; hau da, gizonen jokabidea zehazten duten arau kultural eta sozialak aldatzeko aukera dago. Lehen aipatu bezala, aldaketa hori lortzeko eta ekintza humanitarioko maskulinitateen azterketa berdintasunera bideratzeko, gizonen krisi humanitarioen aurretik, krisietan zehar eta horien ostean egiten duten boterearen erabilerari buruzko hausnarketa egin beharra dago. Gizonen eta maskulinitateen eginkizunaren azterketa aintzat hartzeko argudioen artean, Frances Cleaverek (2002: 2-5) honako hauek aipatzen ditu:

- Berdintasuna eta gizarte justizia sustatzen du; izan ere, maskulinitateak aztertzeak eta lantzeak, boterearen ikuspegitik egiten bada, desparekotasun-harremanak orekatzen laguntzen du.
- Emakumei egokitutako zaugarritasun tradizionalaren interpretazioa zabaltzen du, gizonen zaugarritasuna ere kontuan hartzen duelako. Osasunaren arloa horren adibide da; izan ere, hondamendiko testuinguruetan (batez ere, gatazka armatuetan), batez ere gizonak dira arrisku praktikak egiten dituztenak, alkohol eta droga gehiegi hartzen dutenak edo suizidio-tasa altuena dutenak. Hala, jokabide horien guztien ondorioz, emakumeek baino bizi-itxaropen txikiagoa dute.
- "Maskulinitatearen krisi" delakoari eta horrek gizonengan berengan, emakumeengan eta gizartean dituen ondorio kaltegarriari aurre egiten die. Esate baterako, hainbat gizonentzat, lekualdatze eta asilo egoeretan genero-rol tradizionalak galtzeak (hala nola hornitzailearen rola) maskulinitatearen eraikuntzan eragiten du eta, ondorioz, gizon bezala duten identitatean ere. Hainbat ikerketaren arabera (Lukunka, 2012; Ritchie, 2018), horrek jokabide disfuntzionalak, antisozialak eta biolentoak ere ekar ditzake haiekiko (alkohola eta drogak hartzea, suizidioak) eta besteekiko (familia eta komunitate barruko indarkeria).
- Genero-harremanen eta -rolen negoziazioa errazten du. Horiek gogorragoak dira eremu publikoan aldatzeko, baina errazago negoziatzen eta eraldatzen dira eremu

pribatuan. Hortaz, gizonen rolak aztertzeak eta lantzeak eta familia eta harreman eremu hurbilean aldatzen laguntzeak eraldaketa nabarmenagoak eta estrukturalagoak ekar ditzake eremu publikoan.

Gizonekin esku-hartzeko eremuak ugariak izan daitezke ekintza humanitarioan. Izan ere, emakumeei zuzendutako ekintza guztiekin batera gizonen berriaz zuzendutako ekintzak egin daitezke, berdintasunaren aldeko maskulinitateak sustatzeko asmoz. Hona hemen hiru adibide:

- Emakumeen ahalduntzea laguntzen duten prozesuekin batera, gizonen emakumeengan, gainontzeko gizonengan eta naturan erabiltzen dugun boterea/kontrola kolokan jartzeko eta ezabatzeko beste prozesu batzuk abian jar ditzakegu.
- Emakumeak erantzukizuneko eta erabakitze eremuetan sar daitezke sustatzeko, lagungarria izan daiteke gizonen bideratutako ekimenak lantzea, gizonen eremu publikoaren, hitzaren eta erabakitze eremuen jabetze maskulinoa landu dezagun.
- Genero- eta sexu-indarkeriaren aurkako borroka esku-hartze prebentibo eta etengabea eskatzen du gizarte, komunitate eta/edo familia testuinguruan eragiteko; izan ere, testuinguru horrek, maiz, indarkeriaren garrantzia gutxiesten du, hura normalizatzen du, modu pasiboan onartzen du eta, are gehiago, sustatzen du. Gizonen, eginez edo ez eginez, modu kontziente edo inkontzientean, indarkeria hura erreproduzitzen duen testuinguru patriarkala sostengatzen laguntzen dugu egunero. Hortaz, haren eraldaketaren eragile nagusiak izan behar dugu.

Nolanahi ere, ezinbestekoa da maskulinitateen azterketa barne hartzen duten ekintza humanitarioen abiapuntu gisa hartu behar ditugu gizonen emakumeengan erabiltzen dugun boterea, sexu-genero zapalkuntzako sisteman dugun dominazio-posizioa eta berdintasuna lortzeko dugun erantzukizuna. Hau da, boterearen auzia ezin da beste kezka batzuen itzalean geratu: "subjektibitate maskulino" desberdinak (Cornwall eta White, 2000: 2), horiek maila indibidualean sortzen dituzten erronkak (Cornwall et al., 2011: 16) eta/edo patriarkatuak gizonengan eragiten dituen kalteak (zirion landaluze, 2018: 77).

Gero eta gehiago, maskulinitateari buruzko hausnarketak boterearen eta horrek desparekotasunean duen eraginaren ikuspuntutik abiatzen dira, sexualitateari, aitatasunari, zaintzari eta, jakina, indarkeriari dagokienez. Hala ere, ekintza humanitarioan aplikatutako azterketen zati handi batek ez du lortu boterea kategoria nagusi gisa kokatzea. Horien artean aurkitzen ditugu, besteak beste, ekintza humanitarioaren arloko gizonen ezkutukotasuna eta ordezkartza eskasa lehenesten duten lanak; edo rol maskulino tradizionalak nahasten dituzten krisi-egoeren inaktuagatik gizonak biktimizatzen dituztenak. Azken horiek, maiz, ez dituzte rol horiek kolokan jartzen edo gizonen desparekotasunean duten erantzukizuna salatzen. Are gehiago, desparekotasun hori babestu eta leheneratzea sustatu ohi dute. Beste alde batetik, gai horri buruzko lan askok dimentsio indibiduala edo pertsonala lehenesten dute. Alabaina, ez dauka zentzurik gizonen subjektibitateak modu isolatuan aztertzeak; aitzitik, hori kritikoki egin behar da eta horien atzean dagoen dominazioko gizarte-testuinguruaren esparruan (White, 2000: 35).

7. Ekintza humanitarioan maskulinitateak aztertzeke dauden erresistentziak

Erresistentziak eraldaketa-prozesuen berezko zati bat dira, batez ere tartean botere-borrokak daudenean. Lorena Pajaresen hitzetan (2018: 61), "boterea dagoenean, erresistentzia dago... hura galtzeko erresistentzia, alegia". Emakumeek ez bezala, gizonok ez dugu genero-harremanak aldatzeko interes komuna, batez ere horrek pribilegioak galduko ditugula esan nahi badu; nahiz eta beti ez garen horiek identifikatzeko eta/edo onartzeko gai. *Statu quo* patriarkalak onurak ekartzen dizkigun heinean, hura eraldatzeko axolagabetasuna eta are aurkakotasuna adierazten ditugu. Hala ere, Connellek azaltzen duen bezala (2001: 370), berdintasunaren aurkako erreakzioak ikusgarriak izan daitezkeen arren, ez dira gehienak gizonen artean.

Erresistentzia horiek, bada, maskulinitateen azterketa txertatzerakoan agertzen dira ekintza humanitarioan ere eta tarteko eragile guztietan ager daitezke: Estatuak (emaileak eta hartzaileak), agentzia humanitarioak, nazioarteko zein tokiko GKEetako langileak, laguntza jasotzen duten komunitateak eta pertsonak, eta abar. Jarraian, erakundeetan izaten diren erresistentziei buruzko ideiak landuko ditut, Pajaresek (2018: 75 eta hurrengoak) Garapenerako GKEetan genero-ikuspegia txertatzean pertsonak eta erakundeak erakusten duten erresistentziari buruz egindako lanean oinarrituta.

Lehenik, dimentsio pertsonalari dagokionez, litekeena da erakundeetako gizonen zalantza eta erresistentzia handiagoa erakustea, gure maskulinitatea lantzeak zuzenean interpelatzen gaituelako. Izan ere, alde batetik, gizon bezala dugun eraikuntza eta sozializazioa kolokan jartzen du eta, bestetik, gure pribilegioei eta patriarkatuan dugun dominazio-posizioari uko egiteko eskatzen digu. Ondorioz, generoari buruz hitz edo lan egiten denean, ohikoa da gizonen pentsatzea ez dela guri dagokigun gai bat ("emakumeen kontuak dira"). Era berean, eztabaida politizatzen denean eta emakumeen zapalkuntzari edo gizonen pribilegioei eta erantzukizunari buruz hitz egiten denean, maiz, erasotuak sentitzen gara, babes-jarrera hartzen dugu eta jazarpenaren biktimak ere sentitzen gara. Gizonontzat ez da eroso patriarkatuaren esparruan "zapaltzaile" gisa dugun kondizioa onartzea. Dударik gabe, hori gizonekin berdintasuna lantzeko oztopo nagusietako bat da; izan ere, alor horretan ikuskerak, sinesmenak eta ohiturak, kritiken beldurra eta abar nahasten dira (Pajares, 2018: 76).

Erresistentzia horiek gainditzeko estrategiak identifikatzean, Cleaveren ustez (2002: 1-3), ekintza orok galtzaile (gizonak) eta irabazle (emakumeak) absolutuen logika lehiakorra gainditzen saiatu behar dute. Hau da, berdintasunaren ikuspegia ez da "batura zero" kontu gisa ikusi behar, non emakumeak bakarrik ahaldundu daitezkeen gizonak desboteretzen diren heinean.

Beste estrategia bat da maskulinitate hegemonikoak gizonontzat ere duen kostua azpimarratzea, hala, gizonen beren pribilegioak eta emakumeen zapalkuntza eztabaidatzeko prest egon daitezkeen (Cornwall et al., 2011: 3 eta 16). Berdintasuna gizonontzat modu "onargarri eta erakargarri" batean aurkezteak (Olivius, 2016: 61) eztabaida ekar lezake, gaiaren nolabaiteko despolitizazioa eskatzen baitu. Hala ere, eraldaketa prozesuaren hasieran edo une jakinetan aintzat har daiteke aukera hori. Horren arrazoa hau da: kasu bakan batzuetan izan ezik, gizarte-justizia maila altuagoak lortzeko helburua ez da historikoki pizgarri nahikoa izan zapalkuntza sistematik onurak jasotzen dituzten

taldeak inplikatzeko. Hau da, helburu hori lortzea, berez, ez da izan motibazio nahikoa gizon askok aldaketak sustatzeko konpromisoa har dezaten. Aitzitik, jokabide eta jarrera matxistek berengan dituzten ondorio negatiboez jabetzeak beste hausnarketa sakonago eta politikoago batzuk egin ditzaten ahalbidetu dezake.

Estrategiak diseinatzeko, hausnartu beharra dago ere nori dagokion gizonekin lan egiteko ardura nagusia. Mugimendu feministak adierazi du emakumeekin egiten den lanak gizonak eraldatzeko helburua ere baduela; izan ere, emakumeen ahalduntzeak, beren rolen aldaketak eta beren "asertibitate berri" horrek eragina izango dute inguruko gizonengan eta komunitateetan. Hala, arazoa da berdintasunaren ardura, berriz ere, emakumeei leporatzen zaiela eta "lanaldi bikoitza" egokitzen zaiela, hau da, beren praktikak eta pentsamoldeak aldatzeaz gain, inguruko gizonak ere aldatu behar dituzte (White, 1997 eta 2000). Beraz, funtsezkoa da gizonok gure aldaketa indibidual eta kolektiboaren protagonismoa har dezagun.

Bigarrenik, erakundearen barnean zein kanpora begira, hau da, ekintzak ezartzeko testuinguruan, sor daitezkeen antolakuntzako erresistentziak ditugu. Barneko mailan, genero-azterketa eta maskulinitateen azterketa txertatzeak erakundearen barrenean eragiten du; izan ere, kontuzko gaiak ukitzen ditu: botere-harremanak; diskurtsoen eta praktikaren arteko arrakala; pribilegioak galtzea; justizia eta berdintasuna; *status quo*-a kolokan jartzea; eta abar. Hau da, izaera politiko, kulturala eta harremanekoa duten kontuak dira, ez soilik teknikoak (Pajares, 2018: 61). Kanpoko mailan, testuinguruaren baldintza batzuek eragina izan dezakete erakundeko erresistentzietan, hala nola hauek: ekintza humanitarioan nagusi den logika tekniko eta produktibista, emaitzetara bideratzen dena eta ez prozesuetara; langileen mugikortasun-maila altua, barneko genero-prozesuen jabetasuna eta iraunkortasuna zailtzen duena; edo politika neoliberalen esparrua, azken hamarkadetan erakundearen jardura hartu duena (*ibídem*: 95-96) eta hausnarketaren eta ekintza politikoaren aurkako testuingurua dena.

8. Arreta berezia eskatzen duten erronkak

Eremu humanitarioan, baliabideen urritasuna (denbora, langileak, materiala eta finantzazioa) kezka da beti, batez ere premia gehiago dituen gaur egungo testuinguruan. Horrek eskatzen du agenda humanitarioan jarduketa-ardatz berriak sartzea, hala nola maskulinitateen azterketa; eskatzen du esku-hartzeko lehentasunak birformulatzea, erakundeen ahalmenak doitzea, langileak trebatzea eta aldaketaren aurrean erakundearen barruan zein kanpoan sortzen diren erresistentziak kudeatzea. Eta, hori guztia, oro har izaera teknikoko proiektuak nagusi diren ekintza humanitario batean, "premiazkoaren tiraniaren" menpe dagoena (Bradshaw, 2013: 95) eta, ikusi dugun bezala, aurrekontu gero eta estuagoak dituen.

Lehentasunak birformulatzeaz gain, beste erronka hau dago horren inguruan: arreta maskulinitateen azterketan jartzeak zenbateraino baztertzen du emakumeek pairatzen duten desparekotasunaren gaia. Halaber, azken hamarkadetan genero-ikuspegiaren txertaketan lortutako aurrerapenak galtzeko eta desberdintasun hori handitzeko beldurra ere dago (White, 2000: 34; Cleaver, 2022: 5-6). Kezka horiek legitimoak dira; izan ere, maskulinitateen azterketa ekintza humanitarioan txertatzean, ez bada oinarri gisa hartzen boterearen erabileraren azterketa, azkenean, genero-harreman tradizionalak indartzeko arriskua dago (Cornwall et al., 2011: 14). Esate baterako, "maskulinitatearen krisia" aipatu dut lehenago, hau da, krisi humanitarioko testuinguru askotan gizonen familiaren hornitzailearen eta babeslearen rola "galtzen" dutela, eta horrek familian eta/edo komunitatean jokabide antisozialak edo biolentoak izatera eraman ditzakela. Gai horri buruzko esku-hartzea garrantzitsua da, baina erronka da hori hausnarketazko eta sormenezko modu batean egitea, normaltasun patriarkalera ez itzultzeko (Cornwall eta White, 2000: 2), hau da, nagusi diren botere-harremanak ez erreproduzitzeko.

Gainera, ekintza humanitarioak duen presio finantzarioa kontuan hartuta, gizonekin egin beharreko lana genero-ikuspegian sartzearen ondorio ekonomikoak ere kontuan hartu behar ditugu, eta horrek generoaren arloko gaur egungo lehentasunak alda ditzakeen baloratu. Adibidez, Ilot Muthakaren ustez (2018: 249), Kongoko Errepublika Demokratikoan lan egiten duten nazioarteko erakundeek gizonen eta mutilen aurkako sexu-indarkeriaren aurkako kasuetan esku-hartzeko zalantzak erakusten dituzte, horrek emakumeen eta nesken aurkako sexu-indarkeriara bideratutako dirua murriztuko duen beldur direlako, are gehiago kontuan hartuta azken hori askoz ere sarriagoa dela. Horregatik, finantzatzaileek eta erakunde humanitarioek, gizonekin egin beharreko lana eta maskulinitateen azterketa genero-ikuspegian sartu nahi badute, helburu horretara diru gehiago bideratu behar dute, genero ikuspegia duten esku-hartzeak arriskuan edo egoera ahulean ez jartzeko, baizik eta horien eragina sakontzeko.

Eremu kontzeptuala, diskurtsiboa eta kulturala eskatzen duen arreta beste erronka bat da. Maskulinitatea hitza konplexua eta anbigua da, hainbat esanahi eta helbururekin erabil daitekeelako. Beste kontzeptu batzuek ere, hala nola generoak, berdintasunak, ahalduntzeak eta feminismoak, interpretazioa desberdinak izan ditzakete (Abellán Merelo de Barberá et al., 2021: 121). Horrek, bada, arazoak sortzen ditu eragile humanitarioek kultura-testuinguru desberdinetan erabiltzen dituztenean; izan ere, horietako batzuetan agian ez dago horien pareko noziorik, ez dira jabetzeko errazak edo ez dira kezka nagusi bat bertakoentzat (White, 2000: 39). Zentzu horretan, lan humanitarioa modu kulturalki egokian eta begirunez egin beharra dagoela gogoratzeaz gain,

ideien inposizioari eta Mendebaldeko (neo)kolonialismoari buruzko azterketa bat egin behar dugu; izan ere, horiek guztiak ekintza humanitarioan ere agertzen dira.

Kolonietako biztanleak otzan, ezjakin, arlote, pasibo, biktima eta ume gisa irudikatzen dituen irudi estereotipatua eta gutxiesgarria sortzea eta erreproduzitzea ezinbestekoa izan zen horiek kolonizatzeo eta (neo)kolonizatzeo (zirion landaluze, 2018: 68). Kolonizazio horren esparruan, administratzaile kolonialek kolonizatuaren maskulinitateak problematizatu zituzten, bai "ahulak eta emakume-jarrerakoak" zirelako bai biolentoak, basatiak eta kontrolaezinak zirelako (Kimmel, 2002: xiii). Logika hura humanitarismo klasikora igaro zen eta ezagutzen dugun ekintza humanitarioaren konfigurazioa blaitu zuen. Hortaz, Hegoalde Globaleko gizonak eta maskulinitateak aipatzen direnean, maiz nagusitasun moral zuri, mendebaldeko eta kristau batetik egiten da, eta laguntzaren "hartzaile" diren gizarteetan, bertako erakundeetan, eta gizonen izaera patriarkala kritikatzeko. Hala, mendebaldeko pentsamendu kolonialeko maskulinitatearen eraikuntzak markatu du nola ikusi dituzten ekintza humanitarioko eragileek kolonizatutako "besteak", kontrako eta menpeko gisa. Hortik aurrera, ekintza humanitarioaren erronka maskulinitate neokolonialak gainditzea eta Hegoalde Globaleko maskulinitateen irudikapen partzial eta interesatuak ezabatzea da.

Beste erronka bat feminismoaren barruan generoari buruz ematen diren eztabaidei dagokie, horiek garapenaren eta ekintza humanitarioaren eremuetan eragiten baitute. Arlo horietan berdintasunaren gaira egindako hurbilketak sexu-genero sistemaren kontzeptualizazioan oinarritu dira; hau da, sexua emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun biologikotzat hartuz eta generoa desberdintasun biologiko horretan oinarritutako desparekotasunaren eraikuntza sozialtzat hartuz. Baina, generoaz gain, sexua ere eraikuntza soziala dela dioen argudioak (Butler, 1990) genero-teoriaren oinarriak astindu zituen orain dela zenbait hamarkada. Ideia horretan oinarrituta, garapenaren eta ekintza humanitarioaren arloko hainbat idazle feministak honako hau proposatu dute: hurbilketa konplexuagoak, irudimenezkoagoak eta zehatzagoak egitea (El-Bushra, 2000; White, 2000) eta gizon-emakume bereizketan dauden kategorizazio estatiko eta dikotomikoak gainditzea; horiek sexu eta genero aniztasuna baztertzen dutelako (Cornwall et al., 2011; Cornwall 2014; Abellán Merelo de Barberá et al., 2021). Teorizazio feministatik datorren beste erronka batek zerikusia du zapalkuntza-sistemak (patriarkatua, arrazakeria, klasismoa, kolonialismoa, heteroaraua, etab.) haien artean konektatuta aritzearekin. Ikuspegi feminista interseksional batetik, horrek botereari buruz dugun ulermena zabaltzera behartzen gaitu, sexismoan oinarritutako desparekotasunaz gain, beste dominazio-modu batzuk aintzat hartzeko eta aldi berean zapalkuntza-sistemei aurre egiteko. Oro har, proposamen teoriko eta praktikoa feministak beharrezkoak dira maskulinitateen azterketa oinarritzeko eta gizonen erabiltzen dugun boterea, gure pribilegioak eta horiek desparekotasunean duten eragina politizatzeo eta problematizatzeo (Cornwall et al., 2011; Azpiazu Carballo, 2017; Abellán Merelo et al., 2021).

Azkenik, buruan izan behar dugu eraldaketa soziala gatazkatsua dela berez eta are gehiago zapalkuntza egoera historikoei aurre egin nahi dienean, genero-desparekotasunarekin gertatzen den bezala. Horrek eskatzen du pentsamolde eta jokabide pertsonalak, sozialak eta instituzionalak aztertzea, ebaluatzea, berrikustea, lantzea eta eraldatzea; hortaz, beti egongo dira erresistentziak eta, horrekin batera, gatazkak. Zentzu horretan, gizonen borondate pertsonalaz eta erakundeetan borondate politikoaz gain, arreta jarri zaie aldaketa prozesuen laguntza jarraituari, langileen trebakuntzari eta sortzen diren gatazkak prebenitzeko eta kudeatzeko ekintzei.

9. Ondorioak

Ekintza humanitarioa, eboluzionatzeko gai da eta etengabe moldatu da krisi egoera berrietara, nazioarteko egoeraren bilakaerara, Estatu emaileen eta hartzaileen politiketara, finantzazio-fluxuetara eta abarrera. Egokitzapen horrek eskatzen du birpentsatzea, trebetasun berriak ikastea, gaitzea, jarduteko modu zaharkituak aldatzea eta ezabatzea, eta aldaezinak ziruditen uste zurrunei aurre egitea. Gaur egungo testuinguruan, ekintza humanitarioak bere esparru etiko eta morala (printzipio humanitarioak) eta bere babeseko arau-esparrua kolokan ikusten ditu, bere egitura instituzionalak handitzen eta konplexuagotzen dira eta bere helburuen eta prozeduren espezifikotasuna lausotzen da. Halaber, batez ere Iparralde Globaletik sustatutako "gobernantza humanitarioak", neurri handi batean, dominazio arrazista, neokolonial, sexista eta heteronormatiboko harremanak erakusten ditu. Esparru horretan, maskulinitateen azterketa ekintza humanitarioan sartzea pertsonen, erakundeen eta egituren eraldaketa sustatzeko aukera da, gero eta zalantza eta ziurgabetasun gehiago dituen eremu batean.

Ekintza humanitarioa ez da jarduera teknikoa soilik, tradizionalki ikusi izan den bezala; politikoa ere bada. Izan ere, neurri handi batean boteretik eta boterearentzat egin da eta botere hura, batez ere, gizonen eskuetan dago. Hortaz, maskulinitateen lanketa, benetan eraldatzailea izateko, honako hauek aztertzean oinarritu behar da: gizonok sexu-genero zapalkuntzako sisteman dugun boterea, posizio horrek dakartzigun pribilegioak eta berdintasunerako bidean dagokigun erantzukizuna. Eraldaketak, nagusiki, botere horri eta pribilegioei uko egitea eskatzen du, hau da, gure dominazio posizioak sortzen duen "dibidendu patriarkalari". Berdintasunaren aurkako maskulinitateak alde batera uzteko desberdin jokatu behar dugu gure erabakien, jarrerren, jokabideen, diskurtsoen eta praktiken bitartez, arlo pertsonalean eta profesionalean.

Eremu humanitarioan, "dibidendu patriarkalari" uko egiteak eskatzen du aztertzea botere horrek eta gizonen pribilegioek nola eragiten duten hondamendi "naturalen" eta gatazka armatuen aurretik, horietan zehar eta ostean; hau da, argitzea zer botere erabiltzen dugun, nola, noren aurka eta zergatik. Maskulinitateei buruzko hausnarketa kritiko hori maila indibidualean (erabakitzen duten politikariak, agentzia humanitarioetako eta nazioarteko eta tokiko GGKEetako langileak, laguntzaren hartzaileak, akademikoak) eta erakunde mailan dagokigu, hau da, apustu politiko kolektiboa eskatzen du. Ikusi dugun bezala, gizonekin maskulinitateei buruz egin beharreko lanaren aurrean pertsonen, taldeen eta erakundeen erresistentziak sor daitezke prozesuan zehar; azken batean, aldaketaren aurkako erresistentziak dira. Erresistentzia horiek ezagutzea eta horiek gainditzeko tresnak identifikatzea eragile humanitarioen erronketako batzuk dira.

Bibliografia

Abellán Merelo de Barberá, Beatriz et al. (2021), "La aplicación del enfoque feminista en la acción humanitaria", en IECAH y MSF, *La acción humanitaria en 2020-2021: la pandemia retrasa las reformas necesarias*, 115-125.

https://iecah.org/wp-content/uploads/2021/12/IECAH-2020_2021-Def.pdf

Abbondanzieri, Camila (2022), "Los aportes de la decolonialidad a las narrativas feministas en Relaciones Internacionales: aproximaciones para posibles abordajes de la cooperación internacional", *Relaciones Internacionales*, 49, 21-49.

Anderson, Mary B. (2004), "A mixed blessing", in Afshar, Haleh eta Deborah Eade (argtz.), *Development, Women and War. Feminist Perspectives*, Oxfam, Oxford, 212-219.

Azpiazu Carballo, Jokin (2017), *Masculinidades y feminismo*, Virus, Bartzelona.

Barnett, Michael N. (2017), "Introduction: International Paternalism: framing the debate", in Barnett, Michael N. (argtz.), *Paternalism beyond Borders*, Cambridge University Press, Cambridge, 1-43.

Bradshaw, Sarah (2013) (argtz.), *Gender, Development and Disasters*, Edward Elgar, Cheltenham.

Brauman, Rony (2011), *La medicina humanitaria*, Icaria, Bartzelona.

Butler, Judith (1990), *Gender Trouble: Feminism and the Subversion of Identity*, Routledge, New York eta Londres.

Cleaver, Frances (2002), "Men and Masculinities: New Directions in Gender and Development", in Cleaver, Frances (argtz.), *Masculinities Matter! Men, Gender and Development*, Zed Books, Londres, 1-27.

Connell, R. W. (2005), "Change among the Gatekeepers: Men, Masculinities, and Gender Equality in the Global Arena", *Signs: Journal of Women in Culture & Society*, 30(3), 1801-1825.

– (2001), "Masculinity Politics on a Word Scale", in Stephen M. Whitehead eta Frank J. Barrett (argtz.), *The Masculinities Reader*, Cambridge, Polity, 369-374.

– (1995), *Masculinities*, Polity Press, Cambridge.

Cornwall, Andrea (2014), "Taking off International Development's Straightjacket of Gender", *The Brown Journal of World Affairs*, 21(1), 127-139.

Cornwall, Andrea Jerker Edström eta Alan Greig (2011), "Introduction. Politicizing Masculinities in Development", in Cornwall, Andrea Jerker Edström eta Alan Greig (argtz.), *Men and Development: Politicizing Masculinities*, Zed Books, Londres, 1-18.

Cornwall, Andrea eta Sarah C. White (2000), "Men, Masculinities and Development", *IDS Bulletin*, 31(2), 1-6.

Christie, Ryerson (2017), "Gender, Humanitarianism and the Military", in Woodward, Rachel eta Claire Duncanson (argtz.), *The Palgrave International Handbook of Gender and the Military*, Palgrave Macmillan, Londres, 335-353.

- Donini, Antonio (2013), "Acción humanitaria: percepciones y poder", in Abu-Sada, Caroline (argtz.), *La mirada de los otros. Cómo las poblaciones en crisis perciben la ayuda humanitaria*, Icaria, Bartzelona.
- El-Bushra, Judy (2000), "Rethinking Gender and Development Practice for the Twenty-First Century", *Gender and Development*, 8(1), 55-62.
- Enarson, Elaine eta Bob Pease (2016), "The gendered terrain of disaster: thinking about men and masculinities", in Enarson, Elaine eta Bob Pease (argtz.), *Men, Masculinities and Disaster*, Routledge, Abingdon, 3-20.
- Greene, Margaret E. (2000), "Changing Women and Avoiding Men", *IDS Bulletin*, 31(2), 49-59.
- Harcourt, Wendy (2010), "Development as if gender matters", *Development*, 53(2), 210-214.
- Hooper, Charlotte (1998), "Masculinist Practices and Gender Politics: The Operation of Multiple Masculinities in International Relations", in Zalewski, Marysia eta Jane L. Parpart (argtz.), *The "Man" Question in International Relations*, Westview Press, Boulder, 28-53.
- IASC (2017), *Manual de género para acción humanitaria*, Inter Agency Standing Committee.
<https://reliefweb.int/report/world/manual-de-g-nero-para-acci-n-humanitaria-2017>
- IECAH eta MSF (2022), *La acción humanitaria en 2021-2022: Más allá de la guerra de Ucrania*. Instituto de Estudios sobre Conflictos y Acción Humanitaria y Médicos Sin Fronteras.
https://iecah.org/wp-content/uploads/2022/12/Informe_iecah2022_FINAL.pdf
- (2021), *La acción humanitaria en 2020-2021: la pandemia retrasa las reformas necesarias*.
https://iecah.org/wp-content/uploads/2021/12/IECAH-2020_2021-Def.pdf
- (2019), *La acción humanitaria en 2018-2019: sin cambios en tiempos de incertidumbre*.
https://iecah.org/wp-content/uploads/2019/12/Informe_IECAH_MSF-2018-2019.pdf
- Kimmel, Michael (2002), "Foreword", in Cleaver, Frances (argtz.), *Masculinities Matter! Men, Gender and Development*, Zed Books, Londres, xi-xiv.
- Larrañaga, Mertxe eta Yolanda Jubeto (2012), "Reflexiones en torno a Género y Desarrollo", *Boletín de Recursos de Información del Centro de Documentación de Hegoa*, 1-6.
https://dhls.hegoa.ehu.eus/uploads/resources/5813/resource_files/Bolet_n_Hegoa_n_30.pdf?v=63741889165
- Levy, Caren, Nadia Taher eta Claudy Vouhé (2000), "Addressing Men and Masculinities in GAD", *IDS Bulletin*, 31(2), 86-96.
- Lukunka, Barbra (2012), "New Big Men: Refugee Emasculation as a Human Security Issue", *International Migration*, 50(5), 130-141.
- Miguel Juan, Carmen (2016), *Refugiadas. Una mirada feminista al derecho internacional*, Catarata, Madril.
- Mohanty, Chandra (1988), "Under Western Eyes. Feminist Scholarship and Colonial Discourses", *Feminist Review*, 30, 61-88.
- Mujika Chao, Itziar eta iker zirion landaluze (2021), "Development and Foreign Aid", in Väyrynen, Tarja, et al. (argtz.), *Routledge Handbook of Feminist Peace Research*, Routledge, Abingdon, 388-398.

- Muthaka, Ilot (2018), "Sexual violence againsts men and boys in the Congo", en Zalewski, Marysia, Paula Drumond, Elisabeth Prügl y Maria Stern (eds.), *Sexual Violence againsts Men in Global Politics*, Routledge, Londres y Nueva York, 249-250.
- Olivius, Elisabeth (2016), "Refugee men as perpetrators, allies or troublemakers? Emerging discourses on men and masculinities in humanitarian aid", *Women's Studies International Forum*, 56, 56-65.
- Pajares Sánchez, Lorena (2018), *Análisis de las resistencias de género en las ONG de desarrollo. Visibilizando las incoherencias como estrategia para la transformación*, Eusko Jaurlaritzza.
<https://www.garabide.eus/fitxategiak/dokumentuak/doks/analisis-resistencias-al-genero-en-las-ong-de-desarrollo-1.pdf>
- Perejil, David (2022), "Los enfoques decoloniales y antirracistas en la acción humanitaria", in IECAH eta Médicos Sin Fronteras, *La acción humanitaria en 2021-2022: Más allá de la guerra de Ucrania*, 117-127.
https://iecah.org/wp-content/uploads/2022/12/Informe_iecah2022_FINAL.pdf
- Ritchie, Holly A. (2018), "Gender and enterprise in fragile refugee settings: female empowerment amidst male emasculation—a challenge to local integration?", *Disasters*, 42(1), 40-60.
- Ruiz-Giménez, Itziar (2017): "Una mirada crítica al 'humanitarismo' desde los estudios pospositivistas", *Revista CIDOB d'Afers Internacionals*, 117, 173-196.
- Standing, Hilary (2007), "Gender, myth and fable: the perils of mainstreaming in sector bureaucracies", in Cornwall, Andrea, Elizabeth Harrison eta Ann Whitehead (argtz.), *Feminisms. Contradictions, Contestations and Challenges in Development*, Zed Books, Londres eta New York, 101-111.
- Swaine, Aisling (2017), "Enabling or Disabling Paternalism: (In)attention to Gender and Women's Knowledge, Capacity and Authority in Humanitarian Contexts", in Barnett, Michael N. (argtz.), *Paternalism beyond Borders*, Cambridge University Press, Cambridge, 185-223.
- True, Jacqui (2012), *The Political Economy of Violence Against Women*, Oxford University Press, New York.
- Turner, Lewis (2021), "The Politics of Labelling Refugee Men as 'Vulnerable'", *Social Politics: International Studies in Gender, State & Society*, 28(1), 1-23.
- Zenbait Egile (2000), *La antropología en la ayuda humanitaria*, Serie Ayuda Humanitaria, Textos básicos, 8. libk., Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo
<http://www.deusto-publicaciones.es/deusto/pdfs/humanitaria/humanitaria08.pdf>
- zirion landaluze, iker (2019), "Del reformismo a la transformación. Una crítica feminista al Derecho Internacional de los Derechos Humanos", in Landa Gorostiza, Jon-Mirena (zuz.), *Retos Emergentes de los Derechos Humanos: ¿Garantías en Peligro?*, Tirant Lo Blanch, Valentzia, 535-555.
- (2018), *Desarme, desmovilización y reintegración de ex combatientes. Género, masculinidades y construcción de paz en la República Democrática del Congo*, Tirant Lo Blanch, Valentzia.
- White, Sarah C. (2000), "'Did the earth move?' The hazards of bringing men and masculinities into gender and development", *IDS Bulletin*, 31(2), 33-41.
- (1997), "Men, Masculinities and the Politics of Development", *Gender and Development*, 5(2), 14-22.